

DENONTZAT RACE DONOSTIA ARAUDIA

DENONTZAT RACE DONOSTIA (DRD) oztopo lasterketa bat da (OCR), **2022. urtean Estatuko eta Euskadi-ko OCRA ligaren barne egongo dena.**

1.Artikuloa.- DATA ETA LEKUA

Denontzat Race Donostia (aurrerantzean DRD) OCR lasterketa Donostian ospatuko da **2022-ko Maiatza-ren 7-an, larunbata, arratsaldeko 16:30-etan.**

IZEN-EMATEAK: Frogako web orrian egin ahal izango dira: <https://denontzatrace.com/>

COVID-19 PROTOKOLOA

Proba antolatzeko, pandemiaren egoera eta agintari eskudunek ezarritako neurriak hartuko dira kontuan. Erakundeak erregelamendu honetan jasotako edozein alderdi edo zerbitzu aldatu ahal izango du parte-hartzaileen eta antolakuntzako langileen segurtasunak eskatzen dituen protokoloak betetzeko.

Lasterketan hartutako segurtasun-neurri guztien txostena bidaliko zaie parte-hartzaile guztiei.

Covid-19ren ondorioz proba adierazitako egunean bertan behera geratzen bada, antolakuntzak beste data bat eskainiko du, edo bestela, probaren inskripzioaren zenbateko osoa itzuliko du.

2. Artikuloa.- PARTE HARTZEA ETA GUTXIENKO ADINA

Edozein persona edo edozein jatorrietako pertsonak parte hartu ahal izango dute, horretarako gutxienezko adina 14 urte izanik (18 urte azpiko partaideek beraien kargura dagoen pertsonaren baimen agiria sinatuta eraman beharko dute dortsala jasotzerakoan).

3.Artikuloa.- DRD IRTEERA

DRD Irteera Zurriola hondartzan kokatuko da.

Zure irteera txanda baino ordu t'erdi lehenago iristea komeni da. Aparkatu, arropaz aldatu, zure motxila utzi eta beroketa ariketak egiteko denbora nahikoa izan dezazun.

Irteera txanda ezberdinetan antolatuko da partide kopuruaren arabera, izena ematerakoan zure txanda zein den esango zaizu.

Parte hartzaileak irteera gunean beraien txanda hasi baino 10 minutu lehenago egon beharko dira, txip kontrola pasa ahal izateko. Dagokion txanda antolatzeko megafoniatik agindu ezberdinak emango dira une bakoitzean.

Lasterketa itxiz antolakuntzako korrikalari bat joango da, azken irteeratik gehienezko denbora 3 ordukoa izango delarik.

4. Artikuloa.- IBILBIDEA, KATEGORIAK ETA PREZIOAK

4.1 IBILBIDEA

DENONTZAT RACE DONOSTIA 10 km luzera eta 20 oztopo baino gehiago dituen lasterketa bat da.

Hau da jakin behar duzun guztia...presta zaitez ustekabe asko bizitzeko. Kontuan izan ibilbidean hondartza guneak, mendia, eskailerak, hesiak,...izango dituzula oztopo ezberdinak gainditu, igo, saltoak egin eta urrezko guneak zeharkatzeaz gain.

Korrikalariaren ardura eskusiboa da oztopo bat gainditu behar duen ala ez erabakitzea, bere egoera fisikoaren arabera. Zure lasterketaren erritmoa, inguruneari, oztopoari eta lasterketaren une horretako egoerari egokitzea gomendatzen dizugu.

Oztopo bat gainditzeko saikera egin baino lehen bere egoera fisikoa nahikoa dela ziurtatu behar du korrikalaria. Oztopoa ez bada gainditzen eta Marshall-ak ez badu oztopoa ixten, korrikalaria kanporatua izango litzateke.

4.2 KATEGORIAK

DRD lasterketak kategoria LEHIAKORRA edo HERRIKOIAN izena emateko aukera ematen du.

Modalitate Lehiakorra:

- Elitea
- Adin Taldea

Modalitate Herrikoa:

- Banakakoa
- Taldea



Kategoria lehiakorretan oztopo guztiak gainditu beharko dira kanporatua ez gertatzeko, OZTOPOA GAINDITZEKO BETEBEHARRA bezala ezagutzen dena. Lasterketaren gune zailenetan penalizazio bat burutzeko aukera emango da. Oztopoa gainditzen saitu ondoren burutuko da penalizazio hau eta beharrezkoa izango da hau gainditzea.

Kategoria Lehiakorrean izena emateko aukerak:

1. **ELITE:** Lehen txandan aterako dira.
2. **ADIN TALDEA:** Kategoria honetan Elite –ko arau berberekin lehiatzen da, normalean erritmo gutxiago duten eta hain prestatuak ez dauden korrikalariarentzat, baina bere adinekoekin lehiatu nahi dutenentzat.

Gizon zein emakumeen adin taldeak honakoak izango dira:

- 14-15
- 16-17
- 18-19
- 20-24

- 25-29
- 30-34
- 35-39
- 40-44
- 45-49
- 50-54
- +55

KATEGORIA HERRIKOIA

Kategoria hau EZ da lehiakorra izango, beraz, ez ditu gainontzeko mailen arau berdinak izango, lasterkariak bertan parte hartzeko animatu asmoz.

Modalitate honetan parte hartzen duten pertsonak BANAKA edo TALDEKA parte hartu ahal izango dute lasterketan.

- **TALDEKAKO IZEN-EMATEA**

DRD lasterketak **KUADRILAK** txandan parte hartzeko aukera ematen du, horretarako gutxienez **3 partaide** izan behar zarete (taldea gizonezko, emakumezko edo mixtoa izan daiteke).

KUADRILAK: Banakako txanda lehiakorraren ondoren aterako dira. Partaide guztiak talde bat bezela lehiatu beharko dira, beraien artean laguntzeko aukera izango dute bai oztopoetan zein penalizazio ariketetan. Elkarrekin Joan beharko dira hasieratik froga amaitu arte.

4.3 PREZIOAK

DRD lasterketako prezioak izen-emate epearen edo precio bakoitzarentzat ezarritako plaza kopuruaren arabera aldatzen dira (behin epea amaituta edo plazak agortuta, hurrengo kuotara pasako dira prezioak):

- **Lehen epea: 2022-ko Urtarrilak 31 arte, 100 plaza gehienez: 30 €**
- **Bigarren epea: 2022-ko Otsailak 1-etik 28-ra edo 300 plaza: 40 €**
- **Hirugarren epea: 2022-ko Martxoak 1-etik 31-ra edo 300 plaza: 45 €**
- **Laugarren epea: 2022-ko Apirilak 1-etik 30-era edo 300 plaza: 50 €**
- **Lasterketa egunean (dorsalak gelditzen badira): 60 €**

DRD lasterketan izena ematen dutenei oroitzapenezko jantzi bat, korrikalariaren poltsa, kronometrairako txip-a eta finisher domina (azken hau solik lasterketa amaitzen duten korrikalariarentzat eta kronometrai txip-a itzultzen dutenean) emango zaie.

Izen-emate bat ontzat emango da izen-emate kuota ordaintzen denean.

DRD lasterketan izena emateko ordainketak behin betikoak izango dira, izen-ematea burutu ondoren ez dira diru itzulketak onartuko.

Dorsala beste norbaiti uztea ez dago baimenduta.

3. Artikuloa.- ASEGUROAK

DRD lasterketan parte hartzen duen orok bere ardurapean egiten du eta froga egiteko gutxienezko fisikoa eduki beharko du.

Antolakuntzak dagokion legediak eskatzen dituen erantzunkizun zibileko eta istripu aseguruak kontratatuko ditu.

4. Artikuloa.- JANZKERA ETA UNIFORMETASUNA

1. Txanda lehiakorretan petoa edo dortsala eraman behar da edo epaileek ikusteko moduan dagoen gorputzeko atal batean marraztuta.
2. Parte hartzaile guztiek dortsal zenbakia eta txanda zehazten duen pultsera bat edukiko dute.
3. Beste pertsona baten dortsalarekin parte hartzen duen korrikalaria deskalifikatua izango da.
4. Dortsalik edo petorik gabe parte hartzen duen korrikalaria deskalifikatua izango da.
5. Jantzi aldaketa ez dago baimendua. Lasterkariak gainetik jartzeko jantzia eraman dezake (manta bat, xira,..) eta nahi duenean erabili, baina lasterketa hasi duen jantzi guztiarekin amaitu beharko du (bai jantzita edo bai berarekin eramanez). Objeto edo jantziak ibilbidean uztea, edo edozein motatako ondakinak botatzea, deskalifikazioa suposatuko luke.
6. Lasterketa egiteko erabiltzen den arropa, modalitate hau burutzeko egokia dena izan behar da, inolako arrisku egoerarik suposatzen ez duena eta lasterketan parte hartzen duten gainontzeko korrikalarietara trazarik jartzen ez diena. Antolatzaileek janzkeran inolako arriskurik ikusiko balute, parte hartzaileari jakin araziko zaio arrisku hori kentzeko. Korrikalariak jantzi arriskutsu hori kentzen ez badu, kaleratua izango da.
7. Korrika edo igeri oinetakoekin egin behar da. Debeztatua dago oin hutsik parte hartzea ibilbide guztian.
8. Bilutsik edo era desatseginean parte hartzea debeztatua dago.
9. Lasterketa hasieran bere arauzko jantzia ez dutenek ezin izango dute bere irteera tandan atera eta ez dira froga hortan sailkatuko. Kategoria herrikoian aldiz atera ahal izango da.
10. Soilik magnesioa hautsean edo eskularruak erabiltzea baimentzen da. Oztopoari itsatsi daitekeen beste edozein produktu (resina hautsa, resina likidoa,..) ez da inolaz ere baimentzen.

5. Artikuloa.- SAILKAPENAK

Banakako lehiaketan lehen hiru gizonak eta lehen hiru emakumeak zein KUADRILAK taldeen lehen gizonetzko zein emakumezkoak pódium-ean aitortuko dira.

Txanda hauetako lehen sailkatuek frogako babesle zein laguntzaile ezberdinek emandako opariak jasoko dituzte.

Emaitzak lasterketa egunean jakin ahal izango dira.

8. Artikuloa.- SEGURTASUNA ETA IBILBIDEA

8.1 Ibilbidea baliza bidez markatu eta seinalizatuko da. Bestalde, antolakuntzako bolondresak egongo dira ibilbideko bidegurutzetan.

8.2 Bide publikoaren segurtasuna eta trafikoaren arreta ibilbideko zenbait puntutan antolakuntzako bolondres edo/eta trafiko agenteen bidez bermatuko da.

8.3 Lasterketa jarraituko duten ibilgailu edo persona bakarrak antolakuntzak zehaztutakoak izango dira, eta behar bezala akreditatuta joango dira.

8.4 Antolakuntzak ur hornidura puntu bat jarriko du ibilbidean zehar.

8.5 Ibilbide osoan zehar beharrezko laguntza teknikoa eta medikua egongo da, partaide kopuru eta indarrean dagoen legediaren arabera.

8.6 Laguntza medikua eta antolakuntzako teknikariak baimenduak daude edozein parte hartzaile lasterketatik erretiratzeko arrazoi medikoak direla medio.

9. Artikulua.- MARSHALL ETA BOLONDRESAK

9.1 Marshall-aren ardura da oztopo ezberdinen arauak errespetatzen direla ikuskatzea eta berau izango da oztopo horren gain aginte osoa duen persona.

9.2 Marshall-ak irteeran, helmugan eta lasterketaren oztopo zailenetan egongo dira kokatuak.

9.3 Marshall batek oztopo bati buruz hartutako erabakia ezin izango da erreklamatu.

9.4 Bolondresak lasterketaren antolatzaileen menpean egongo dira eta hain zailak ez diren oztopoetan kokatuak dira. Oztopoa gainditu den ala ez erabakiko dute eta erabakia horri ezin izango zaio aurka egin.

9.5 Asistentzi medikuak eta Marshall-ak baimenduak egongo dira lasterketan zehar egoera fisiko egokia ez duten parte hartzailek erretiratzeko.

9.6 Derrigorrezkoa da lasterketa hasi baino lehen oztopo ezberdinetan baimenduak dauden edo ez dauden xehetasunei buruzko informazioa ematea.

9.7 Oztopo zailenetan beti Marshall bat kokatuko da, hau era egokian gainditu den ala ez ziurtatuko duena. Marshall-ak oztopoa gainditu denaren oneritzia emango du. Marshall-ak emandako adierazpenei adi egon behar da edo eta aldezturik galdetu dudan dagoen kasuetan.

10. Artikulua.- KIROL PORTAERA ARAUAK

10.1 Alkohola edo eta drogen efektuen menpe korritzea guztiz debekatua dago.

10.2 Kategoria berdinean oztopoaren itxaron zerrenda ez errespetatzea, errepikapen ilaran gertatzen denean ere, urratze gisa kontutan hartuko da eta urratzailearen deskalifikazioa suposatuko du.

10.3 Parte hartzaile bat ibilbidetik ateratzen bada asistentzi medikua jasotzeko, irten den puntu berberetik itzuli beharko da lasterketara, itzuli baino aurretik gertuen dagoen epaile edo bolondresari lehenik abisatuz.

10.4 Parte hartzaileak lasterketaren ibilbidea jarraitu beharko dute uneoro eta ibilbidean dauden oztopo guztiak gainditu kanpo laguntzarik gabe.

10.5 Ezin izango da inolaz ere lasterketaren ibilbidea utzi. Lasterketan zehar ibilbidea ez badago ondo seinalizatua edo zalantzak badaude, oztopo lasterketen korrikalari gisa zentzu komuna

erabiliko da eta inoiz ez du bere burua arriskuan jarriko duen ibilbideetatik joango. Oztopoak ekiditzea eta lur zailak sahiestea araudia ez betetzea eta lasterketa ez burutzea suposatuko du.

10.6 Lasterketaren ibilbidea uzten bada, korrikalaria irten den puntu berberetik itzuli beharko da. Marshall-ak, antolakuntzak edo beste korrikalari batek puntu ezberdin batetik sartu dela ikusten badute, korrikalari horren deskalifikazioa suposatu dezake.

10.7 Oztopo bat gainditzeko saikera faltsuak egiteak, zuzenean penalizaziora joateko, araudiaren aurkakoak dira eta berriro egin beharko da oztopoaren saiakera.

10.8 Ibilbidean zehar inoiz ez dira beste parte hartzaileen saiakerak oztopatu behar, igarobide estua dagoenean, atzetik datorren korrikalariak pasoa eskatu eta gainditua izan behar den korrikalariak pasoa erreztu beharko dio.

10.9 Parte hartzaile bati dagokion penalizazioa modu desegokian egiteak urratze bat suposatzen du eta kasu honetan penalizazioa errepikatu beharko da.

10.10 Parte hartzaile guztiek, parte hartzeagatik araudi hau onartu eta bertako arauak betetzeko konprometzua hartzen dute.

10.11 Korrikalariak lehiaketaren araudia ez ezagutzeak, ez ditu salbuesten bertako arauak ez betetzeaz.

10.12 Lehiaketan parte hartzen duten korrikalari guztiek gainontzeko kideengan errespetua erakutsi behar dute eta kirol jokabide bat mantendu. Era berean, gainontzeko parte hartzaile, bolondres, Marshall eta antolakuntza kideekiko ere errespetua erakutsi.

Errespetu falta bat somatuz gero, korrikalaria deskalifikatua izango da eta hurrengo lasterketari dagozkion puntuak kenduko zaizkio (diziplina-prozedura irekiko zaio). Kasu honetan DRD antolakuntzak ofizioz joka dezake.

10.13 Korrikalariak beste edozein parte hartzaile, Marshall, bolondres edo antolatzaile iraundu dezaketean adierazpen edo eta jokabideen arduradun dira eta antolatzaileek erabakitako edozein motatako zehapen edo kanporatzea edo gainerako beste edozein erabaki onartu beharko dute.

10.14 Lasterkariak bete beharrekoak:

- Kirol jarrera bat mantendu
- Arau baten intentzioa errespetatu, arau horren idatzia era ezberdinetan interpretatu daitekeenean.
- Norberaren eta gainontzekoen segurtasunaren arduradun izan
- Eskura dauden arauak ezagutum ulertu eta jarraitzea
- Marshall-en argibideak jarraitu
- Korrikalariak, Marshall-ak, bolondresak, babesleak, antolakuntza eta ikusleak errespetuz tratatzea
- Hizkuntza iraingarri eta pejoratiboa ez erabiltzea
- Lasterketa utzi eta berehala Marshall-ei jakinarazi. Lasterketa bukatu baino lehen ez badute jakinarazten, deskalifikatuak suertatu daitezke.
- Lasterketa-n lehiatzea antolatzaile eta Marshall-en laguntza soilik jasoaz.
- Ibilbidean zehar hondakinik edo jantzirik ez uztea, espreski adierazitako guneetan soilik. Hornidura guztiak korrikalariak eraman beharko ditu eta lasterketa amaieran dagokion lekuan baztertu.
- Inolaz ere modu desegokian abantail bat lortzen saiatzea.

10.15 DRD lehiaketan parte hartzen duen edonork badaki oztopo lasterketa batean parte hartzen ari dela. Korrikalari batek oztopoak ekiditu edo eta hauek Marshall-aren oneritzia gabe gainditzen dituela eta dagokion penalizazioa betetzen ez dituela somatzen bada, froga horren puntuak kenduko zaizkio, antolakuntzak hartu ditzazkeen beste zenbait erabakiaz gain.

10.16 Korrikalari batek oztopo bat nola gainditu behar den esaten dion Marshall-aren adierazpenak kontutan hartzen ez baditu, Marshall-ak intzidentzia apuntatuko du eta korrikalaria deskalifikatua izango da.

10.17 Gu gainditzen ari den korrikalariari bidea utzi behar zaio, naiz eta bere erritmoa mantxotu. Aurrerapen bat egiten ari diren korrikalariak lehentasuna dute gaindituak izan direnengan.

Atzetik datozen korrikalariari pasatzen uzten ez dieten korrikalariak zigortuak izan daitezke. Aurreratzen ez uztea errepikatzen bada deskalifikazioa suposatzen dezake.

10.18 Korrikalari baten jarrera besteekiko izan behar da:

- Beste korrikalari bat nahita ez blokeatzea. Blokeatzeak kanporatzea dakar.
- Beste korrikalari baten progresioa nahita oztopatzea
- Norberarengan edo beste korrikalariari min eman dezakeen moduan ez mugitzea
- Beste korrikalari baten norabidean nahita ez sartzea

11. Artikulua.- KORRIKALARIARI KANPO LAGUNTZA

11.1 DRD lasterketako txanda ezberdinetan laguntza jasotzea debekatua dago, bai fisikoa, bai hornidura puntuan, magnesio edo antzekoak... laguntza hori oztopoa gainditzeko izan, jateko, jantzia jartzeko edo aldatzeko izan arren.

Soilik hornidura puntuetan dagoen ura, edariak edo jakiak jasotzea edo partekatzea baimentzen da, eta aparteko kasuetan asistentzi medikuak emandakoak.

11.2 Erbiak erabiltzea kanporatze arrazoia izango da. Erbia izango da lasterketako txanda berdinean izena emanda ez egonik, ibilbidean korritzera sartzen dena beste korrikalari baten erreferentzi edo laguntza emateko.

11.3 Banakako lasterketa izanik, ez da baimentzen taldeko lagunekin, manager-arekin edo erbiekin korritzea.

12. Artikulua.- KRONOMETRAIA

12.1 Lasterketako denborak lasterketako kronometratzaile ofizialak eman behar ditu.

12.2 Kronometraia eta azken sailkapenarekin edozein arazo izan ezker, korrikalari baten denbora erregistratu ez delako edo txip-a matxuratu edo galdu delako, DRD antolakuntzak kronometratzaileari helmugako erregistro grabatuak eskatuko dizkio amiera postu eta denbora zehazteko. Korrikalariaren ardura ere bada helmugara iristean bere denbora erregistratu dela ziurtatzea.

12.3 Kronometrai akats bat izan duen korrikalariak sari banaketa burutu baino 30 minutu lehenago egin beharko du sailkapenen erreklamazioa.

13. Artikulua.- ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

13.1 Arau-hausteak izango dira:

- Oztopo bat ez gainditzea
- Beste korrikalari bat oztopatzea

- Ibilbidean zehar edo oztopo bat gainditzean kanpo laguntza jasotzea. Baimendutako laguntza bakarra lasterketa antolakuntzarena, Marshall-ena edo bolondresena izan daiteke, ura edo magnesioa oztopoaren ondoan utziaz.
- Lasterketako ibilbidea ez burutzea
- Izena emandako edo esleitutako txandan ez parte hartzea.
- Beste korrikalari bat bultza edo jotzea
- Oztopoaren txanda edo errepikapen ilara bat ez errespetatzea, denbora irabazteko aprobetxatuz.
- Erbiak erabiltzea
- Baimenduak ez dauden ekipamenduak erabiltzea
- Lasterketa bezperan edo egun berean oztopoak frogatzea
- Lasterketako oztopo edo elementu ezberdinetan nahita matxurak egitea
- Beste korrikalari, bolondres, Marshall edo antolatzaileengan hitzeko edo tratu txar fisikoak eragitea
- DRD Lasterketa antolakuntzaren edo gainontzeko korrikalarien aipuaren aurka edozein ekintza egitea.
- Kirol espirituaren aurka doan edozein ekintza egitea

13.2 Edozein urratzea egitearen gutxienezko ondorioa lasterketatik kanporatze automatikoa izango da.

Kanporatzeak eskumuturrekoa kentzea suposatuko du, helmugan sartzean egiaztatuko dena. Korrikalari bat eskumuturrekorik gabe helmugan sartzen bada, kanporatua izango da.

Korrikalari batek nahigabe eskumuturrekoa galtzen badu ibilbidean zehar, ibilbidean aurkitzen dituen Marshall guztiak jakinaren gainean jarri beharko ditu eta ohartu direla ziurtatu, helmugan sailkatu ahal izateko.

DRD antolakuntza ofizioz jardun daiteke edozein urratze somatu ezker.

14. Artikukoa- ERREKLAMAZIOAK

14.1 DRD lasterketako edozein korrikalarik jar dezake erreklamazio bat, beste korrikalari, antolakuntza edo Marshall bati, DRD lasterketari zuzendutako ohar baten bidez.

14.2 Kanporatzeagatiko erreklamazioak emaitzak argitaratu eta hurrengo 24 orduetan egin behar dira. Intzidentzia edo/eta urratzeak egiteagatik sailkapen ofizialak argitaratu eta hurrengo 24 orduetan egin behar dira DRD antolakuntzari zuzenduak.

DRD antolakuntzak jasotako erreklamazioak, erreklamazio epea itxi eta hurrengo 72 orduetan erabakiko ditu lehen instantzian.

14.3 Jasotako erreklamazioak ERREKLAMAZIO BATZORDE batek aztertuko ditu. Bere egitura honakoa da:

- DRD antolakuntzako 2 partaide.
- Lasterketako epaile Master-a..
- Erreklamazioa suertatu den lekuaren edo gertuen zegoen oztopo Marshall-a.

Erreklamazio Batzordeak 72 ordu izango ditu epaia emateko. Jakinarazpena DRD lasterketaren informazio kanal ofizialetan argitaratuko da.

Erreklamazio Batzordeak erabaki inpartzialak hartuko ditu eta sailkapen ofizialak eta erresoluzioak argitaratu bitartean zuhurtzapenez jokatu beharko du.

Erreklamazio Batzordearen erabakia eta argitarapena bere partaide guztien artean adostu beharko da.

14.4 Erreklamazioak DRD antolakuntzari zuzendu beharko dira, denontzatracedonostia@gmail.com posta elektronikoa helbidera, eta honako edukia eduki beharko dute:

- Erreklamazioa jartzen duenaren datuak
- Kirol legearen aurka doan ekintza erakusten duen irudia edo bideoa.
- Erreklamazioa egiten zaionaren datu edo deskribapena

15. Artikulua.- DATUAK BABESTEKO LEGEA

15.1 DRD lasterketan parte hartzeak antolakuntzari baimentzen dio parte hartzaile bakoitzaren izena, irudiak, grabazioak edo lasterketako beste edozein erregistroen dohako erabilpen libre eta mugagabea egiteko bere komunikabide eta hedabideetan betirako eta inolako konpentsaziorik jaso gabe.

15.2 Datu Pertsonalen Babeserako, Abenduak 13-ko 15/1999 Lege Organikoak ezarritakoaren adostasunean, jakinarazten da lasterketan parte hartzeak baimena ematen duela emandako datu pertsonalak antolakuntzako fitxategi automatizatuan sartzeko. Fitxategi honen helburua lasterketaren kudeaketa eta antolakuntza aurrera eramatea delarik.

15.3 Lasterketan antolakuntzak parte hartzaileen izen abizenak, N.A.N zenbakia, Herria, Telefonoa, Posta Elektronikoa, lehiaketaren izena, dortsal zenbakia...eskatuko ditu izen-emate zuzena egin ahal izateko.

16. Artikulua.- LASTERKETA BERTAN BEHERA UZTEA

Antolakuntzak, beharrezkoa balitz, ibilbidea, oztopoak edo ordutegia aldatzeko aukera edukiko du.

Lasterketaren antolakuntzak, arduradun gisa, bere irizpidearen arabera edo agintari eskudunen adierazpenak jarraituz, erabakiko du lasterketa bertan behera gelditzeko baldintzak ematen diren ala ez. Arrazoi meteorologiko edo beste edozein egoerak parte hartzaileen osasun edo segurtasunerako arrisku baldintzak suposatzen baditu. Kasu hauetan ez da diru itzulketarik egingo.

DRD antolakuntzak honelako kasuetan dauden irizpideak onartuko ditu eta lasterketa hasita balego, emaitzak balizkoak diren ala ez erabakiko du.

17. Artikulua.- ARAUDIAREN ONARPENA

17.1 DRD lasterketan parte hartzen duten korrikalari eta taldeak lehiaketa araudi hau bete beharko dute.

17.2 Araudi honen atal ezberdinen kapitulu bat ez betetzeak Lehiaketa Batzordeak aztertuko du eta dagokion neurria edo isuna erabakiko du.

17.3 Araudia ez ezagutzeak ez du hau betetzea salbuesten.

17.4 Araudi hau onartzeak suposatzen du arduraz irakurri dela, lasterketan parte hartzearen arrisku guztiak bere gain hartzen direla, bertan jasotako baldintza guztiak ulertzen direla eta

antolakuntzari eskubide garrantzitsuak eman zaizkiola izen ematea libreki eta borondatez egin delako.



DENONTZAT
DONOSTIA RACE